



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2022KO APIRILAREN 28AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2022ko apirilaren 28an, arratsaldeko 19:30etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Xabier Azpiroz, Julen Beunza, Santos Etxegia eta Ricardo Arangoa.

BERTARATU EZ DIRENAK: Olatz Dorai eta M^a Mar Ansorena.

19:30etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onspena.

Martxoaren 31eko ohiko batzarreko akta eta apirilaren 13ko ezohikoak emailaz helarazi zaizkie zinegotziei eta aho batez onartzen dute bildutakoek aurreko batzarreko akta.

2.- Alkate ebazpenak

-2022/26 alkate ebazpena onartuz Felix Iribarren Barreneteak aurkeztutako aitorten ardurtsua, Ihabengo 3. Poligonoko 34. Lursailean egurtegia egiteko, obra honen aurrekontua 9.475 eurokoa da.

- 2022/27 alkate ebazpena onartuz Jose Urchipia Galarzak aurkeztutako aitorten ardurtsua, Berueteko 11. Poligonoko 61. Lursailean dagoen etxebizitzaren teilatua eraberritzeko, 38.964,75 euroko aurrekontuarekin.

- 2022/28 alkate ebazpena onartuz Alfonso Hernandez Pousak egindako EIOZren ordainketa epeka egitea, eskaera, 2022/77 alkate ebazpen bidez onartutako, Aizarotzko 10. Poligonoko 8. Lursailean dagoen etxebizitzaren fatxada konpondu eta leihoak aldatzeko obrarako.-
- 2022/29 alkate ebazpena onartuz behin behinekoz Xabier Mercero Bizkaik egindako gainbalioaren zergari lotuta ez egoteko eskaera, Gartzarongo Asuncion 24 kalean daogen 2 D etxebizitzaren salmentagatik, ikusita, Nafarroako Toki Ogasunen 1995/2 Foru Legea aldatzen duen 2017/19 Foru Legearen 172. Artikuluaren arabera salerosketak ez duela gainbalioa sortu.
- 2022/30 alkate ebazpena onartuz behin behinekoz M^o Teresa Osorio Escudero egindako gainbalioaren zergari lotuta ez egoteko eskaera, Aizarotzko Mendialdea 4 A helbidean dagoen etxebizitzaren salmentagatik, ikusita, Nafarroako Toki Ogasunen 1995/2 Foru Legea aldatzen duen 2017/19 Foru Legearen 172. Artikuluaren arabera salerosketak ez duela gainbalioa sortu.
- 2022/31 alkate ebazpena onartuz behin behinekoz Maria Gascue Oscozek egindako gainbalioaren zergari lotuta ez egoteko eskaera, Erbitiko 7. Poligonoko 182. Lursailean dagoen etxebizitzaren bere zatiaren salmentagatik, ikusita, Nafarroako Toki Ogasunen 1995/2 Foru Legea aldatzen duen 2017/19 Foru Legearen 172. Artikuluaren arabera salerosketak ez duela gainbalioa sortu.
- 2022/32 alkate ebazpena onartuz Amaia Aranok egindako eskaera eta onartzea aipatutako Igoako 9 . poligonoko 248. Lursailean bigarren etxebizitza egiteko obraren dirulaguntza eskaera 1.099,99 eurokoa.
 - 2022/33 alkate ebazpena onartuz, M^a Concepcion Maqueda Egureni, 2936 BNC matrikuladun autoaren zirkulazio zergaren salbuespena, 2020/22 Foru Legearen 160 e 1^o artikuluaren arabera, 2022. Urtetik aurrera.
 - 2022/34 alkate ebazpena onartzea Trinidad Prieto Morenoren kontra txosten zigortzaileari hasiera ematea Arraratsko 14. Poligonoko 360. Lursailean dagoen erakinean irekiera baimenik gabe apartamentu turistikoak alokatzeagatik.
 - 2022/35 alkate ebazpena onartuz Basaburuko Udalak sustatutako Ttikiena haur eskolarako, 2022-2023 ikasturterako behin behineko onartutakoek zerrenda. Horietatik 11 postu erreserba egin dute eta 5 aurrematrikula berri.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte irakurritako alkate ebazpenak.

3.- Taxi baimenaren esleipena.

Otsailaren 24ko ohiko batzarrean behin behinean onartu zuen Basaburuko Udal batzarrak Pedro Munarriz Goñiren izenean zegoen taxi baimenaren iraungitzea. Tramitazioa 2005/9 Taxiaren Foru Legearen 14.d.2 artikulua jarraituz. Erabaki hau interesdunari jakinarazi zitzaion 2015/39 Prozedura Administratiboaren 82. Artikuluaren arabera 15 eguneko audientzia epea emanaz.

Jakinarazpena Martxoaren 2an jaso ondoren audientzia epea bukatu, ez dira alegazioak jarri eta hortaz behin betikoz onespena ematea dagokio taxi baimenaren iraungitzeari.

Bildutakoek hortaz aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute 2005/9 Taxiaren Legearen 140.d.2 artikulua jarraituz:

-Behin betikoz iraungitzea Pedro Munarriz Goñiren izenean dagoen taxi baimena eta erabaki hau interesdunari jakinarazi.

Orain konkurtsora atera behar da plaza. Eta horretarako baldintza plegua finkatu. Atera dira Ultzama, Leitza eta Irurtzungo udaletan erabili dituzten ereduak eta batzorde buruen batzordean aztertuko.

4.- Udal eraikinak erabiltzeko ordenantzaren aldakea. Hasierako onspena.

Aurreko batzar batean aipatu zen ordenantzan aztertu beharko zela ikusteko kontutan hartzen den baldintza bezala eskatzaileek udalarekin zorrik ez izatea. Azterketa hori egin ondoren ondorioztatu da udalarekin zorrik ez izatea dagoela inon arautua eta hortaz batzarrerako proposamena da ordenantzaren aldaketaren tramitazioa egitea, txertatzeko eskatzaileak udalarekin ez dutela zorrik izan behar...

Baldintza hau 4. Artikuluan txertatuko ahalko litzateke, bukaeran, erabiltzaileak udalarekin ezin dutela zorrik izan eskaera egiten duten momentuan.

Gaia eztabaidatu ondoren eta 1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazio Foru Legearen 325. Artikulua jarraituz bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

Hasierako onspena ematea Basaburuko udal eraikinetan dauden gelak erabiltzeko ordenantzaren aldaketari eta hasierako onspeneko iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu, hilabete epean jende arrear egon dadin.

5.- Elbarrien aparkatzeko txartelak onartzeko ordenantzaren aldaketa Hasierako onspena.

Martxoaren 24an Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako 2022/52 foru aginduak aldatzen ditu txartelak emateko hainbat irizpide, horietako batzuk hauek dira:

-Eskubide Sozialetarako Departamentuak kudeatuko ditu txartelak eta horretarako udalek jakinaraziko dizkiote onartu dituzten elbarrien txartelak eta beraiek emango dizkiete udalei txartelak beraiek erabiltzaileei helarazteko.

Departamentu honek kudeatuko du Nafarroa osoko txartelen datu basea. orain txartel eredia berritu dute ere, hori ere aldaketa da aipatutako foru aginduaren arabera.

-Gainera ere 3 urtetik beherako haurrak mugikortasun arazoak dituztenak ere onuradun bezala sartzen dira txartelaren onuradun bezala.

- Iraungitze epea 5 urtekoa izango da eta epe hori pasatzean berritzeko eskaera tramitatu beharko dute eskatzaileek berriro.

-Bukatzeko larrialdi egoeran daudenek ere eskatu ahal dute txartela, behin behineko txartela izango da eta honen iraungitze epea 6 hilabetekoa, ondoren berriro egoera mantentzen badute berritzea eskatu beharko dute eta berritu ahalko zaie gehienez urte bat bete arte.

Aldaketak hauek txertatu txertatzeko proposamena onartzen da aho batez eta hortaz bildutakoek ordenantzaren aldaketaren tramitazioari hasierako onespena ematea adosten dute aho batez ere, hots 1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazioiko Foru Legearen 325. Artikulua jarraituz bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

Hasierako onespena ematea Elbarrien aparkatzeko txartelak onartzeko ordenantzaren aldaketari eta hasierako onespeneko iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu, hilabete epean jende arrear egon dadin.

6.- Basaburuan fibra optikoa zabaltzeko planaren onespena.

Alkateak azaltzen du Adamorekin izan zen bileraren ondoren udalerrian fibra optikoaren sarea zabaltzeko plana aurkeztu dute. Enpresarekin hitz egin bezala, kontutan hartuta udalak jada fibraren azpiegitura herrietan zabaldu duela, Adamok herriak lotzeko sarearen azpiegitura egingo du eta erabiliko ere herrietan dagoen udaleko azpiegitura fibra zerbitzua emateko. Obra hauek estatuko dirulaguntza batzuekin egin behar dira eta hiru urteko epea dute bukatzeko. Bileran aipatu zuten 2022ko urrian hasiko lirakeela.

Bidalitako fibraren zabaltzeko plana onartzea eskatzen dute, udala eta empresa ados egonik azpiegitura hitz egin moduan zabalduko dela, hots herrien arteko sarea berritik egin eta udalak duen azpiegitura erabiliz bildutakoek ondoren zehazten den erabakia hartzen dute aho batez:

- **Adamo enpresak aurkeztutako Basaburuan fibra optikoaren sarea zabaltzeko plana onartu.**
- **Onespen hau baldintzatua egotea, udala eta Adamo enpresak hitzarmen bat sinatzea, non zehaztuko den Adamok zabalduko duela azpiegitura herriak lotzeko eta erabiliko duela**

7.- Katastroko ponentzia berritzeko prozedurari hasiera ematea.

Martxoaren 22ko 2022/7 Foru legeak arautzen ditu Nafarroako tokiko erakundeen zerga eta funtsak. Horren 20. Artikuluak arautzen du 5 urtero berritu behar direla katastroko ponentzia, eta ez bada horrela egiten funtsaren %10eko murrizketa egingo zaiela udalei.

Gainera ere aipatutako foru legeak derrigortzen ditu udalak kontribuzioa 0.25etik 0.50eko kargarekin izatea, udalak 0.23an du eta hori ez duenez betetzen bost urteko epean gutxienerako tasa onartzeko bidea hartu behar du.

Hortaz katastroko ponentzia berritzeko prozedurari hasiera emateko akordio hartzea adosten dute aho batez bildutakoek eta eskaera hau Lurralde Ondasun Zerbitzura helarazi, dirulaguntzen inguruan informazioa eskatuz.

8.- Mozioak.

Alkateak azaltzen du 0-3 plataformak greba mugagabea deitu duela haur eskolako langileen lan baldintzak eta haur eskolako finantzaketa mahai gainean jartzeko. Nafar Gobernuak da haur eskolen haien egikaritzean bete behar dituzten baldintzak, arautzen du ere haien finantzaketa eta umeen ratioak, beti ere familia eta udalen beharren kalterako.

Hortaz EH Bilduk ondoren irakurtzen den mozioa prestatu du udalak onartu dezaten:

“0-3 hezkuntza-zikloa da, zalantzarik gabe, baina kudeaketaren ezaugarriak, nagusiki udalek beren gain hartzen dituztenak, eta langileen lan-baldintzak ez datoz bat Hezkuntza Departamentuak bere gain hartutako gainerako ziklo eta hezkuntza-etapekin.

Azken urteotan aurrerapauso handiak eman dira familientzako tarifen beherakadan, eta 2016tik ziklo honetarako bideratutako partidari jasotako finantzaketa ere handitu egin da, aurreko urteetako murrizketen ondoren. Era berean, berariazko zerbitzu bat sortu da Hezkuntza Sailean, eta laster aurreikusten da Eskubide Sozialetako Departamentuko Nafarroako Gobernuaren zazpi haur-eskolen titulartasuna Hezkuntzara lekualdatzea.

Hala ere, oso ziklo sakabanatua da eta oso ezaugarri desberdinak ditu, eta bide luzea dago egiteko haur-eskolen doakotasuna, unibertsaltasuna eta lan-baldintza duinak sustatzeko, ratioen beherapenaren aurreikuspenari, hezkuntza-modalitatearen hautaketari eta abarri dagokienez.

Aurreko legegintzaldian, NUKF-k lantalde bat eratu zuen 0 eta 3 urte bitarteko eskolen egoera aztertzeko, eta haren ondorioak Hezkuntza Departamentuari helarazi zitzaizkion. Lantalde horrek esandakoen artean, zerbitzuaren finantzaketa- eta kudeaketa-ereduak egokitzeko beharra nabarmentzen da.

Illo horretan, duela gutxi lantalde bat osatu da udal-ordezkariekin, 0-3 zerbitzuari lotutako gaiak lantzeko

Onartu berri den Transferentzia Arrunten Funtsaren banaketa arautzen duen Foru Legean, 0-3 zikloko modulua funtsaren banaketari buruzko atal baten indizea da,

finantzazio-nahikotasunari buruzko aldagaia kanpo utzita.

Izan ere, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 22ko 6/2022 Foru Legeak bere Xedapen Gehigarri Bakarrean jasotzen du toki-erakundeen eskumen-banaketa argitu behar dela, esleitzen zaizkien eskumenen finantzazio-nahikotasuna bermatzeko beharrezkoak diren baliabideak aurreikusiz.

Hau da, funts hori modulu eta zerbitzuen funtsa izeneko atalaren barruan banatzeko irizpide bat dago, baina zerbitzua garatzeko finantzaketa Hezkuntza Departamentuak eta udalek sinatzen dituzten hitzarmenen arabera izango da. Moduluak finantzatzeko sistema ez da nahikoa, eta ez dator bat zerbitzuaren benetako kostuarekin; izan ere, udalek bere gain hartu behar dituzte modulutik kanpo dauden gainkostu guztiak (bajen estaldura, antzinatasuna, errefortzu gehienak...). Egoera horrek bereziki zigortzen ditu zuzeneko kudeaketa publikoaren aldeko apustua egiten duten udalak. Beraz, Hezkuntzari dagokio moduluak egokitzea eta finantzaketa handitzea.

Egoera hori izanik, Nafarroako 0-3 Plataforma ere hainbat ekimen gauzatzen ari da, zerbitzuaren inguruko hainbat aldarrikapen biltzen dituztenak, hala nola ratioak, finantzaketa-moduluak, kudeaketa publikoa, zikloa 2 urteko gelen bidez ez haustea, lan-baldintzak, etab.

Horregatik guztiagatik,

1. Basaburuko Udalak 0-3 zikloa duintzearen aldeko apustua egiten du, ziklo horren kalitatea, unibertsaltasuna, doakotasuna eta baldintzen hobekuntza helburu dituen hezkuntza-ziklo gisa.

2. Basaburuko Udalak NUKF-n ekimena babesten du, eta udalekin, Nafarroako Gobernuarekin, sindikatuekin, Nafarroako Parlamentuan ordezkaturako taldeekin eta 0-3 plataformarekin lan-mahai bat sortzeko eskatzen du, zikloa hobetzeko ekarpenak egiteko konpromiso aktiboa hartuz.

3. Basaburuko Udalak Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio moduluen kalkulua kostu errealerara egokitzeko, udalek beren gain hartu behar duten zenbatekoa orekatzeko eta finantzaketa-sistema egokia eta egonkorra bermatzeko, eskumena erabat argitzea erabakitzen den bitartean.

4. Basaburuko Udalak Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio hezkuntza-ziklo horren inguruan sinatutako akordio guztiak garaiz eta behar bezala betetzeko.

Bildutakoek onartzen dute aho batez transkribatutako mozioa.

9- Batzordeen informazioa.

Kontzejuen Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa.

2021eko kontzejuen kontuak aurkezteko bilera egin zen eta adostu 2022. Urtetik aurrera kontuak egiterakoan bai zirkulazio zergaren ekarpenean bai uraren kontuetan kenduko dira zordunek zor dutena eta hori udaleko sarrera bezala geldituko da, zordunek tramitazioak lanketa administratiboa eskatzen duelako.

Garapen Batzordea. Ricardo Arangoak ematen du informazioa.

Aktibazio ekonomikoaren azterketa egiteko azken bilera Leitzan egin zen eta hurrengo maiatzaren 25an Basaburuan egingo da arratsaldeko 17etatik aurrera.

10- Informazio orokorra.

- 2022ko urtarrilaren 1eko datarekin 844 pertsona erroldatuak daude.
- 2022. Urteko funtsen jakinarazpena jaso da, Basaburuak 302.751 euro jasoko ditu urtean eta orain jada 151.362 euro kobratu ditu.
- Administrazioako langileen egonkortasun legea betetze aldera, udalak hutsik dituen lanpostua ateratzera bidean bilera antolatu da maiatzaren 2an udaleko langileekin.
- Oihanzabal eskolan isolamendua hobetzeko inbertsioa egiteko Hezkuntza Departamentuak laguntza onartu du. Orain obra esleitzeko kontutan hartuta aurrekontua 40.000 euro baino gutxiagokoa dela, Basaburuko eraikuntza enpresei eskatuko zaie obra egiteko aurrekontua aurkeztea.
- Haur eskolako langileak bat egingo dute 0-3 plataformak deitu duen greba mugagabearekin eta maiatzaren 2tik 6ra eskola itxita egongo da. Familiei egoeraren berri emango zaie eta aste hortako kuota ez zaie kobratuko.

11. Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeke ez dagoenez arratsaldeko 19:50 ak direnean bilera amaitut zat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.